

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea administrazio, kultura, kirol eta gizarte jardueren prezio publikoak arautzen dituen ordenantzari

Udalbatzak, 2025eko urriaren 23an balio osoz egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea administrazio, kultura, kirol eta gizarte jarduerak jasotzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen zerga ordenantzari.

Jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsi da hasierako onespeneren erabakia.

Bat etorritoki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 19.4 artikuluan xedatutakoarekin, ordenantzaren testu osoa argitaratzen da.

Administrazio bidea amaitzen duen behin betiko onespeneren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritoki Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46.1. artikuluetan xedatutakoarekin. Horrek ez du eragotziko egoki jotzen den beste edozein errekurtsio aurkeztea.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2026ko urtarrilaren 7a

Alkate-lehendakaria

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA

ADMINISTRAZIO, KULTURA ETA GIZARTE JARDUEREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek, bat etorritoki Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan ezarritakoarekin, eranskinean ageri diren zerbitzu eta jardueren prezio publikoak ezarri eta eskatzen ditu, ordenantza honetan ezarritako eran, zeinaren zati baitira.

2. artikulua

Ordenantza hau Aiara udalerrri osoan ezarriko da.

II. ORDAINTZEKO BETEBEHARRA

3. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoa ordaintzera behartuta daude prezio publikoak ordaindu behar dituzten jardueren onuradun diren edo horietan parte hartzen duten pertsonak.

4. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoen tarifak eranskinean daude jasota.

III. KUDEAKETA ARAUAK

5. artikulua

Kopuru horiek, eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira, eta epigrafeetan azaltzen diren zenbatekoak ezingo dira murriztu.

6. artikulua

Ordenantza honetako zerbitzuak jaso edo udal jarduerak egin ahal izateko, aurrez horien eskaera egin beharko zaio udalari.

Zerbitzu edo jarduera horiek betiere ordenantza honetako prezio publikoak ordaintzeko baldintzapean emandakotzat joko dira eta, luzatu ondoren, prezio publikoa ez ordaintzeak berez eta besterik gabe ekarriko du zerbitzua ez ematea edo jarduera ez egitea.

IV. ORDAINTZEKO BETEBEHARRAREN SORRERA

7. artikulua

Ordenantza honetako prezio publikoak ordaindu beharra zerbitzua ematen den edo jarduera hasten den unean sortzen da. Hala ere, dagoeneko eman eta luzatutako zerbitzuak edo jarduerak badira, ordaindu beharra sortzen da dagozkien tarifetan adierazten diren aldietako bakoitzaren lehenengo egunean.

V. ORDAINKETA

8. artikulua

Prezio publikoa udal kutxetan zuzeneko diru sarrera eginez ordainduko da, zerbitzua eman edo jarduera egin aurretik eta adierazitako zenbatekoan.

9. artikulua

Dagokion zenbatekoa itzuliko da jarduera egiten ez bada eta ez egitearen arrazoiak ezin baizaizkio egotzi prezio publikoa ordaintzeko obligazioa duenari.

10. artikulua

Prezio publiko horiek ez ordaintzearen zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

I. ERANSKINA**Gizarte, kultura eta kirol arloek, euskara arloak, gazteria arloak, berdintasun arloak eta ingurumen arloak antolatutako ikastaroak eta tailerrak emateagatiko prezio publikoa**

TARIFA

1. Prezio publikoaren zenbatekoa honako era honetan kalkulatu da:

- Urteko kirol eta kultur ikastaroak (urritik maiatzera bitarteko aldia, hile biak barne).
 - Urteko kirol eta kultur ikastaroak emateagatik: 1,85 euro orduko.
 - Prezio publikoak osorik sortuko dira kastaro bakoitza hasi baino lehen, udalak erabakitzen duenean ikastaroa aurrera eramatea gutxienez parte hartuko dutenen artean 8 pertsona udalerrian errolatuak izateagatik.
 - Prezioaren zenbatekoa ordainduko da erabiltzaileek (adingabeen gurasoek edo legezko zaintza duenak) eskabidean adierazitako kontu zenbakian helbideraturik ordainketa.
 - Ordainketa bakarra egingo da, eta ez da itzuliko dirurik behin ikastaroa hasi ondoren.
 - Urtarrilean ikastaroetarako izen ematea zabal daiteke berriro, hutsik geratu diren plazak esleitzeko. Kasu horretan, ikastaro osoaren kostuaren erdia ordaindu beharko da.
- Aiarako musika tresna tradizionalen eskola:
 - Trikitrixa diziplina emateagatik ikastaroko 50 euroko matrikula ordaindu beharko da.
 - Pandero diziplina emateagatik ikastaroko 25 euroko matrikula ordaindu beharko da.
 - Trikitixa diziplina emateagatik saioko 10,31 euro kobratuko da. Saio bakoitza 45 minutukoa izango da eta guztira ikasturtean 32 saio emango dira. Gehienez bi ikasle egongo dira saioko.
 - Pandero diziplina emateagatik saioko 5,78 euro kobratuko da. Saio bakoitza 45 minutukoa izango da eta guztira ikasturtean 32 saio emango dira. Lau kidek partekatuko dituzte saioak eta gehienez 6 ikasle egongo dira saioko.
 - Klaseak hil hasieran ordainduko dira, bankuan helbideratuta. Hurrengo hileari dagokiona ordainduko da, eta ikastaroa hasitakoan ez da ordaindutakoa itzuliko.
 - Urtarrilean ikastaroetarako izen ematea zabal daiteke berriro, hutsik geratu diren plazak esleitzeko. Kasu horretan, ikastaro osoaren kostuaren erdia ordaindu beharko da.
- Edozein sailtako ikastaro eta tailer laburrak:
 - Materialilk behar ez denean: 2 euro/ordua.
 - Materialilk behar denean: 4 euro/ordua.

Hobariak:

1. Urteko kirol eta kultura ikastaroen kasuan, eta Aiarako instrumentu tradizionalen eskolako ikastaroen kasuan, aurreko puntuetan jasotako prezio publikoetan hobaria emango zaie honako pertsona hauei:

- a. Langabeak.
- b. Familia ugariko kideak.
- c. 14 eta 29 urte arteko gazteak.
- d. 65 urtetik gorako pertsonak.
- e. Diru sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) jasotzaileak.

2. Hobari horiek eskatu egin behar dira, eta frogagiria edo egiaztagiria aurkeztu behar da.

3. Agiri hauek aurkeztu behar dira horretarako:

a. Langabeek: Lanbiden jasotako inskripzio aldien ziurtagiria eta/edo SEPEko prestazioen ziurtagiria.

b. Familia ugariako kideek: Familia ugariaren liburua edo txartela.

c. 14 eta 29 urte arteko gazteek: Gazte Txartela.

d. 65 urtetik gorakoek: NANA.

e. DSBE jasotzaileek: DSBE jasotzen ari dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

4. Hobari horiek eskatu egin behar dira, eta frogagiria edo egiaztagiria aurkeztu behar da.

Ez da beharrezkoa izango aurretiaz Administrazioaren esku dagoen dokumentazioa aurkeztea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1.d) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Ordaindu beharreko prezio publiko hobaridunak honako hauek dira:

- Urteko kultura eta kirol ikastaroak (urritik maiatzera): 1,50 euro orduko.
- Trikitixa diziplinako ikastaroa: 7,68 euro 45 minutuko klaseko.
- Pandero diziplinako ikastaroa: 4,62 euro 45 minutuko klaseko.

Xedapen iragankorra

2025eko urritik 2026ko maiatzera bitarteko urteko kirol eta kultur ikastaroak eta Aiarako instrumentu tradizionalen eskolako 2025eko irailetik 2026ko ekainera bitarteko eskolak, 2019ko otsailaren 18ko ALHAOn (21. zk.) argitaratutako ordenantzan jasotako tarifen arabera arautuko dira. Ordenantza horrek honako hauek arautzen ditu: zerbitzu publikoak emateagatik tasa, jarduera administratiboak, kulturalak, kirolekoak, sozialak, komunikazio ongizatekoak, pertsonen eta ondasunen babesekoak eta kirol instalazioak erabiltzekoak.

Era berean, 2025eko abenduaren 31 baino lehen deitu edo antolatu diren iraupen laburreko ikastaro eta tailer guztietan, 2019ko otsailaren 18ko ALHAOn (21. zk.) argitaratu zen ordenantzak arautzen dituen tarifak aplikatuko dira: zerbitzu publikoak emateari, administrazio, kultur, kirol, gizarte eta komunikazio ongizateari, pertsonen eta ondasunen babesari buruzko jarduerak egiteari eta kirol instalazioen erabilerari buruzko tasak.

Azken xedapena

Gizarte, kultura eta kirol arloek, euskara arloak, gazteria arloak, berdintasun arloak eta ingurumen arloak antolatutako ikastaroak eta tailerrak emateagatik prezio publikoak arautzen dituen eranskin hau argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du hura aldatu edo indargabetu arte.

II. ERANSKINA**Oporraldietako "jolas txokoak" eta gaztelekuko ez ohiko zerbitzuetan parte hartzeko zerbitzuagatiko prezio publikoak**

TARIFA

1. "Jolas txokoak" eta gaztelekuko ez ohiko zerbitzuetan parte hartzea:

1.1. Prezio publikoaren zenbatekoa honako era honetan kalkulatu da:

- 1,50 euro eskola orduko.

Prezio publikoa kalkulatzeko, udalak urteko une bakoitzean programatutako jarduerak irauten duen egun guztietako orduen guztizkoa hartuko da kontuan, alde batera utzita erabiltzaileak ezin diren bertaratu programak irauten duen egun guztietan.

1.2. Udalak eskaintzen duen zerbitzu bakoitza hasi aurretik sortuko da prezio publiko osoa, gutxienez udalerrian errolatutako 8 pertsona batu ostean.

4. Prezioaren zenbatekoa ordainduko da erabiltzaileek (adingabeen gurasoek edo legezko zaintza duenak) eskabidean adierazitako kontu zenbakian helbideraturik ordainketa.

Kobraketa bakarra egingo da, eta ez da itzuliko dirurik behin programa hasi ondoren.

Hobariak:

1. Aurreko ataleko lehenengo puntuan jasotako prezio publikoetan hobari bat emango zaie gurasoei edo Udalak antolatzen duen programa bakoitzean adingabe bat baino gehiago inskribatzen duten adingabeen legezko zaintza dutenei (izena programa berean eman behar da: "jolas txokoak" edo gaztelekuko ez ohiko zerbitzua) eta familia ugarien titularrentzat.

Izena ematean, familia ugariaren txartela erakutsi beharko da.

Ordaindu beharreko prezio publiko hobaridunak honako hauek dira:

- Aktibitatean adin txikiko baten parte hartzea: 1,5 euro orduko.
- Aktibitatean familia bereko adin txikiko biren parte hartzea: 1,3 euro ordu eta umeko.
- Aktibitatean familia ugari bateko adin txikiko baten parte hartzea: 1,2 euro orduko.

Azken xedapena

Kultura sailak antolatutako "jolas txokoak" programetan edo haur eta gazteentzako lantegi tematikoetan parte hartzeko zerbitzua emateagatiko prezio publikoak arautzen dituen eranskin hau argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da hura aldatu edo indargabetu arte.